

**BERMEOKO UDALEKO HERRI-ARGITERIA INSTALAZIOEN ENERGIA-ZERBITZUAK,  
MANTENU ETA BERME OSOAREKIN**

**KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA (3)**

Bermeoko Urian, Udaletxean eta honen Intxausti kaleko batzar gelan, 2016ko apirilaren 7an, goizeko 8:00ak direnean, batzar publikoan batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J<sup>a</sup>, Mahaiburuaren ordezkoa  
Iker Aguado Buil J<sup>a</sup>, zinegotzia  
Amaia Gaztelu Imatz A<sup>a</sup>, zinegotzia  
Xabier Ortuzar Butron J<sup>a</sup>, zinegotzia  
Karmele Muñoa Arrigain A<sup>a</sup>, Udal Idazkaria  
Edurne Martinez Torre A<sup>a</sup>, Udal Kontuhartzailearen ordezkoa  
Igor Santa Eufemia Bordas J<sup>a</sup>, Kontratazio mahaiko idazkaria.

Aurreko kontratazio mahaiaren batzarrean, hiru enpresa utzi ziren lizitaziotik kanpo eta egun biko epea ematen zitzaien aurkeztutako dokumentazioari alegazioak egiteko.

Honela, hurrengo enpresa hauek alegazioak aurkeztu dituzte.

- New Energy Concept 2020, S.L.
- UTE FCC, S.A. - FCC Industrial – Soprener

Aurkeztutako dokumentazioa ondoren, kontratazio mahaiak alegazioak ontzat hartzen dira eta enpresa hauen eskaintzak lizitazioan mantentzen dira.

Eskaintza hauen B gutun azalak (Proposamen teknikoa. Balio-judizioaren arabera balorazioa duten elementuak.) zabalitzen dira. Gutun azal hauetan honako dokumentazioa dago.

- New Energy Concept 2020, S.L.
  - o 4 txosten
- UTE FCC, S.A. - FCC Industrial – Soprener
  - o 4 artxibadore

Dokumentazioa hau Zerbitzu Saileko teknikariari bideratzen zaio balorazio txostena egin dezan.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

